

VERDE PRATO
TARTA RELENA
LORENA
ÁLVAREZ

ANARI
BILABAL
& ROMAIN
BAUDOUIN
BAHEZ

JANTZARI
DANTZA ETA
MUSIKA
HERRIKOI
TAILERRAK
DANTZA POTELO



I
P
U
R
U
A
N

2024 KO AZARORAK
SARA 1,2,3

USO
POP



EUSKAL KULTUR
ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL
BASQUE

IPURUAN

IPURUAN, Usopop elkarteak antolatzen duen hitzordu berriaren izena da. 2010tik 2020ra Usopop festibala izenpean eta 2022an Mapa Galduak festibala antolatu ondotik, festibala berria **azaroaren 1etik 3ra** iraganen da.

Hitzordu berri honekin, Usopop elkartearen xedea, musika eta dantza herrikoi berritzaileen inguruan belaunaldi desberdinak elkartzea da.

Horretarako, asteburua 3 hitzordutan banatuko da:

- Jantzari filmaren proiektzioa eta Iurretako esperientziari buruzko konferentzia. Euskal kultura tradizionalen parekidetasunaren gaia aipatuko da eta azken urteetan izan diren bilakaeren berri hartuko dugu.

- Dantzaren inguruko lanketa. Egun osoan zehar probintzi ezberdinetako dantzak lantzeko tailerrak eskainiak izanen dira. Ondotik Bilaka konpainiak eskaini Bilabal dantzaldian dantzatzen ahalko dira.

- Eremu desberdinetako kulturak (Okzitania, Katalunia, Asturiak, Euskal Herria) elkartuko ditugu. Musika herrikoia jotzen duten artista garaikideak argitara ezarriko dira.

IPURUAN festibala ,Bilaka konpainia, Iurretako dantzariak, Sarako herriko etxea eta Atabal Biarritzen laguntzarekin antolatua da.

IPURUAN

Azaroak 1 ostirala



2018an, gizon-emakume talde bat ,bestetako egunik garrantzitsuenean Aita San Migel plazara dantzara joan zen. Egun horretan 100 urte baino gehiagoko tradizioa hautsi da. Bost urtean behin, dantza taldeko belaunaldi guzietako dantzariak Urrijena jaietan biltzen dira. 2019an, lehen aldiz, talde mistoak Urrijenan parte hartu zuen. Iurretan, beste Euskal Herriko hainbat lekutan bezala gizonek leku zentrala izan dute. Pixkanaka, emakumeek, doakien lekua hartu dute plaza ezberdinetan. Iurretan, aldaketa pertsona jakin batzuek egindako lanari esker gertatu da. Bizkaitar dantzariak desmartxa honen berri emanen digute.

IPURUAN

Azaroak 2 larunbata



Bilabal x Romain Baudoin

Baionan kokatuta, Bilaka konpaniak dantzariak eta musikariak biltzen ditu. Euskal Herriko kultura tradizionalaren aktibazio garaikidearen aldeko lana egiten dute. Kolektiboak bere konposizioak eta moldaketak aurkeztuko dizkigute publikoa dantatzera gonbidatuz. Herri errepertorioa arakutzen eta berlantzen dute. Data honentzat Romain Baudoin artista okzitandarra gonbidatzen dute. Zatozte atzoko, gaurko eta geroko herri dantzaldi eder honetara parte hartzera.



Anari

1996ean bere lehen diska kaleratu zuenetik, Anari Albedik gure barneko erraiak astintzen ditu. Haren ahotsa gordina, zuzena eta hauskorra, folk edo rock kantu hunkigarrien zerbitzura ezartzen du. Kasik 15 urte dira Usopopekin harreman berezia lotu dela, luzarako segi dadila. Hurbileko 5 musikariek lagunduta, 2024ko martxoan argitaratu « Giza zarata » azken diska aurkezttera dator.



Lorena Álvarez

Lorena Alvarez artista antikonformista eta sailkabezina da. Konpositorea, ekoizlea, kantaria, folk musika bere gisara lantzen du, zango bat tradizioan eta bertzea modernitatean.

Asturiar kantariak baserriko antifolk dibertigarri bat eskaintzen du.

IPURUAN

Azaroak 3 igandea



Tarta Relena

Marta Torrella eta Helena Ros katalandar kantariak osatzen dute 2016ean sortu proiektua. Ahotsean oinarrituak diren erreperitorio desberdinak a capella lantzen dituzte ikutu elektroniko batzu txertatuz. Mediterranear herrialde desberdinetako hizkuntzak, doinuak eta tradizioak molde berritzaile batean kantatzen dituzte . Esperimentazioa bikotearen oinarria da, sinpletasunean konplexitatea eta elementu guttirekin adierazpen maximoa xekatuz .

Verde Prato

Verde Prato ez da publiko zabalaren normen arabera aritzen. Ez da osoki pop musika, ezta elektronika edo oinarritzko folka, 3ak besarkatzen ditu eta bere erara bermoldatzen. Tolosarra, artista totala da, piano jotzailea formazioz, kantaria, konposatzailea eta arte ederretako lizentziatuaren mundu berezian murgiltzea esperientzia bat da.

IPURUAN

XEHETASUN PRAKTIKOAK

Azaroak 1 ostirala - 20:00 - Lur Berri
JANTZARI dokumentalaren emanaldia

•

Azaroak 2 larunbata - 9:00>18:00

Dantza tailerrak

BILAKA

IURRETA KO DANTZA TALDEA

ZAZPIAK BAT DANTZA TALDEA

PEIO LABEYRIE

JOSE CAZAUBON

-k eramanik

Izen ematea patxi@usopop.com helbidera / 5€

•

Azaroak 2 larunbata - 19:00 - Kiroldegia
BILABAL X ROMAIN BAUDOIN + GONBIDATUA

LORENA ÁLVAREZ

ANARI

ATZARBALE

•

Azaroak 3 igandea - 11:30 - Sarako plaza
DANTZA POTEIO

•

Azaroak 3 igandea - 16:00 - Santa Katalina kapera

VERDE PRATO

TARTA RELENA

Sarrerak : www.atabal-biarritz.com

IPURUAN

HARREMANAK

Joanes GARCIA BASURKO

+33 (0)6 70 07 76 56

joanes@usopop.com

Patxi DUTOURNIER

+33 (0)6 10 75 21 71

patxi@usopop.com

USOPOP

Bola bidea

64310 SARA

info@usopop.com

www.usopop.com

